



# IRAULTZA DANTZA TALDEARI BURUZKO HISTORIA.

*Iraultza Taldea*



*Alzolaran, 1993.*

Iraultza dantza taldea 1971. urtean sortu zen, Nekane Arriagaren eskutik, Orereta herrian. Talde hau Francoren garaian sortu zen, zanpatua zegoen gure kultura defendatzeko. Erakunde politikoen aurrean "Aurrerapen" bezala itzuli behar izan zen, benetazko esanahia "Altxamendua" izan arren.

Taldearen lehenengo aktuzioa 1971.eko Aste Santuan egin zen, maniobra leku batean ahazturiko bonba baten leherketaren ondorioz hildako mutil gazte baten omenaldian.

Urte horietan dantza taldeak partaide ugari zituen. Horietako batzuk Iraultza jatetxe begetarianoan sortu zuten, eta beste batzuk Iraultza Fanfarea.

Iraultza dantza taldetik dantzari eta musiko asko pasa dira bi hamarkada hauetan zehar, gaur egun 40 kidek taldea osatzen dutelarik.

Iraultzako partaideen helburua beti izan da Euskal kulturaren bereizgarri diren dantza eta jantziak berreskuratzea eta jendeari ezagutaraztea. Horrela, urteetan zehar 48 dantza eta, gizon emakumeen 230 jantzi ezberdin berreskuratutakoak dituzte.

Lan hau beti taldearen partaideek burutu dute artxibotegi zaharretan ikertuz, jende adintsuarekin hitzeginez, Euskal Herriko herri desberdinetara informazio bila joanez, liburuak kontsultatuz, etb.

Ezagupen guzti hauek modu ugarietan erakutsi diote kaleko jendeari: Erakusketak, jantzien desfileak, eta Euskal Herrian,

Espainiar Estatuan, eta atzerrira egindako bidaietan. Honen lekuko da, 1990. urtean Txekoslovakia ohian eta 1993. urtean Britainian egindakoak. Aurten ere aktuzio ugari burutuko dituzte.

Orain arte guzti hau egin badute ere, lan eta ikerketa hauetan ez dute etsiko eta beti jarraituko dute, etengabe, Euskal Herriari buruzko folklorea ikasten eta jendeari erakusten.

## **25. URTEMUGAN OSPATUTAKO ASTE KULTURALA**

Iraultza Dantza Taldeak ospakizun garrantzitsu honetarako aste kultural bat antolatu nahi izan zuen; bereziki taldeko partaide izandako guztiei eta orohar Oreretako herriari zuzenduta.

Aste kulturalean zehar zenbait ekitaldi ikusi ahal izan genuen, adibidez: Euskal Herriko folkloreak esanahiaren inguruko hitzaldiak, abesbatza jaialdia, haur joko-tailerrak, eta zenbait haur eta helduen aktuzio.

Era berean, bi erakusketa zabaldu ziren: bata aintzinako jantziak eta besteak, Iraultza Dantza Taldeak azken 25 urte hauetan egindako lana argazkietan erakutsiz.

25. urtemuga honi begira Iraultza Dantza Taldearen helburuetariko bat bete zen nagusiki, aintzinako taldekideak elkar-tzea lortu bait zen eta baita talde barnean pasatutako etapa guztiak denek batera birgogoratzea ere. Guzti hauek partaidetza zuzena izan zuten ekitaldi gehienetan eta aste kulturala-



Iztieta, 1994.

ren barnean beraienzat zuzenduta zegoen ekitaldi batetan bereziki.

Aipatutako ekitaldi honen barnean Oreretako kaletan zehar egindako desfilea, aktuazioa eta afaria azpimarratu behar dira. Hauetan 25 urteetan zehar Iraultza Dantza Taldean izandako belaunaldi desberdinetako dantzariak hartu zuten parte. Guzti honek elkartasun bat ekarri zuen Iraultza Dantza Taldeak 25 urte hauetan pasatako jende guztiaren artean.

Gaur egungo taldeko zuzendaria den Ramon Garziari ere bere homenaldira berroa egin nahi izan zitzaion, 25 urte luze hauetan egindako lanaren ordainez. Aipamen berezia merezi du Ramon Garziak egindako lana, honi esker aurrera jarraitzen baitu Iraultza Dantza Taldeak.

25. urteurren honetako ekitaldietan laguntzaile lanetan aritu diren guztiei eskerrak eman nahi dizkie Iraultza Dantza Taldeak. Orohar kontutan hartu behar da dantzari ohi, laguntzaile, ikusle eta lanean aritu garen guztiak 7000 lagun inguru izan garela. Hala ere, urteurren honetan guztia ez da poztetokoa

izan, apirilaren haseran gizonezko batek Oreretako hainbat dendetan dantza taldearen izenean diru eske aritu baitzen. Iraultzak bere garaian gogor salatu zuen gertatzen ari zena, iruzur bat zelako guztia.

## ETORKIZUNA

Iraultza Dantza Taldeak nahiz eta zilar eztaiak ospatu berriak izan, bere ikerkuntza lanetan jasotako ezaguera guztia jendearen aurrean ahal duen modu hoberean azalduz jarraituko du. Era berean, bere urrezko eztaietara iristea pentsatzen duela.

Nahiz eta urte asko pasa, Iraultza Dantza Taldearen helburuak ez dira aldatu bere sorreratik. Iraultza Dantza Taldeak bere lana buka ez dadila nahi du, baina horretarako datozen belaunaldi berriek Euskal Herrian dugun folklore aberatsarekiko interes berriak azaldu eta bereien nahiak erakustea beharrezkoa litzateke gure herri nortasuna oroimen soila izan ez dadin.



Hendaia, 1995.